



Azalpen Orria

2012-05-17



ARES ETA BERE LOSINTXARIAK BERRIZ ERE ZIRIA SARTZEN

Oso zaila egiten zaigu ulertzea nola Ertzainen eskubideek hain eraso larriak jasaten ari direnean, eta hauek erantzun bateratua beharrezkoa dutenean, ESAN sindikatuak, gainerako sindikatuak babestuta, beraien harrotasuna Ertzaintza osoaren interesen aurretik ipintzea onartuz eragin duen sindikatu arteko akordiotik ELAren kanporatzea.

Ez da aste bete ere igaro eta mozorroa kendu du. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren murrizketak egiten ari diren arren, akordioak betetzen ez diren arren, Madriletik murrizketa berriak egingo direla mehatxatu arren, Ertzain guztien aurrean guzti hauen aurrean borrokatuko zela konpromisoa hartu arren, eta beraiek eman duten laguntasunarekin Bilboko kaleak bete, ErNE, ESAN, eta SIPE sindikatuak, negoziazio mahaiak blokeatzeko akordioa ez betetz, Sailak egindako bilera deialdira joan ziren Ares jaunak hain premiazkoa duenaz jarduntzeko: **Errefortzuko Brigada eta Brigada Mugikorreko Zerbitzu Eginkizunak.**

Egiten ari zaizkigunak eginda ere Sailarekin normaltasunezko harremanak izatea larria bada ere, are larriago da AKORDIOA, atzo ESANek egin zuen gisan. Akordio honek Berrozi eta Akonpainamendu Unitatearen desegite txukuna egitea errazten du, hauei beste ertzain guztien aurretik zerbitzu eginkizunetan joateko lehentasunezko eskubidea emanez.

Argi geratu da, zuen guztiekin erdietsitako konpromisoak betetzeko bermatzailea ELA zela eta horrexegatik soberan zegoela. Orain, aske direlarik, azken aldian egiten ari zirena berriro egin dute JATEN EMATEN DIENARI OBEDITU.